



UNITATEA	Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko departamentua
XEDEA	<<24.1 lurramendi pasealekua>> azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehenengo aldaketa. Hasierako onespena.
ORDEZKARIA	Asier Lanceta Vicente
TITULARRA	<<24.1 lurramendi pasealekua>> azpiesparruko ituntze-batzarra

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

LEHENA.- 2024/1821 Jarduneko Alkatetza Dekretuaren bidez honako hau onartu zela:

<<24.1 lurramendi pasealekua>> azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehenengo aldaketa. Hasierako onespena

BIGARRENA.- Akats bat antzeman dela ebazpeneko 2. apartatuan:

Honela dio:

“BIGARRENA.- Urbanizatzeko jarduketa-programaren lehen aldaketa jendaurrean jartzea hogeitun egunez, programaren edukien funtsezko elementuak jasotzen dituen iragarkia argitaratuz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Ataria egunkarietan. Eta, baita, udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarri”. “

Eta honela behar du:

« **BIGARRENA.-** Urbanizatzeko jarduketa-programaren lehen aldaketa jendaurrean jartzea hogeitun egunez, programaren edukien funtsezko elementuak jasotzen dituen iragarkia argitaratuz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Ataria egunkarietan. Eta, baita, udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarri.

Era berean, interesdunen eskura egongo da Tolosako Udalaren web gunean [<https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula>].



Jendaurreko erakustaldian, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, bidezko alegazioak aurkez daitezzen.

HIRUGARRENA.- *Erabakia jarduketak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei jakinarazi beharko zaie". »*

KONTUAN HARTURIK

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 109. artikuluan honako hau ezartzen duela: «...2. Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako ebazpena ematea: alkatea

Aipatutako guztia aintzat hartuta, alkate honek honako hau

EBAZTEN DU

LEHENA.- Zuzentzea 2024ko abuztuaren 8(e)ko 1821 Alkatetza Dekretuaren ebazpena, era honetan:

Honela dio:

« **"BIGARRENA.-** *Urbanizatze jarduketa-programaren lehen aldaketa jendurrean jartzea hogeit egunez, programaren edukien funtsezko elementuak jasotzen dituen iragarkia argitaratuz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Ataria egunkarietan. Eta, baita, udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarriz".*
" »

Eta honela behar du:

« **BIGARRENA.-** *Urbanizatze jarduketa-programaren lehen aldaketa jendurrean jartzea hogeit egunez, programaren edukien funtsezko elementuak jasotzen dituen iragarkia argitaratuz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Ataria egunkarietan. Eta, baita, udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarriz.*

Era berean, interesdunen eskura egongo da Tolosako Udalaren web gunean [https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula].



TOLOSAKO
UDALA

2024H1130003

Jendaurreko erakustaldian, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, bidezko alegazioak aurkez daitezzen.

HIRUGARRENA.- Erabakia jarduketak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei jakinarazi beharko zaie". »

BIGARRENA.- Ebazpen hau onartzea, zuzenketa egin eta gero.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatezaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Begoña Garmendia Vazquez



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024H1130003-DEKRETUA/DECRETO ()